



## UNIBERTSITATE BEKA ESKATZEKO BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA (2023-2024 IKASTURTEA)

- ✓ Ez da paperezko dokumentazioa onartzen, eskaera guztiz elektronikoa baita ikasturte honetan.
- ✓ Nahitaezko dokumentazioa **"Gaineratutako dokumentuak"** erlaitzean gaineratu behar duzu. Era berean, eskaera amaitu ondoren, edozein unetan egin ahal izango duzu, "Aldaketak/Dokumentuak aurkeztea" fitxaren bidez.
- ✓ **Ez da beharrezkoa izango** aurreko ikasturtean espediente elektronikoan sartutako **dokumentu iraunkorrak (I) aurkeztea**, baldin eta haietan adierazitako informazioa aldatu ez bada.
- ✓ **Aldi baterako dokumentazioa (A)** urteko eskaera bakoitzarekin aurkeztu beharko da.
- ✓ **Aurkezteko dokumentazioa:**
  1. **Eskatzaile guztientzat** derrigorrezkoak diren dokumentuak.
  2. **Zirkunstantzia pertsonalen arabera** derrigorrezkoak diren dokumentuak.
  3. **Zirkunstantzia ekonomikoen arabera** derrigorrezkoak diren dokumentuak.
  4. **Zirkunstantzia akademikoen arabera** derrigorrezkoak diren dokumentuak.
  5. Zenbait kasutan **beharrezkoak izan daitezkeen** beste dokumentu batzuk.

1. ESKATZAILE GUZTIENTZAT DERRIGORREZKOAK DIREN DOKUMENTUAK	
A	Bizikidetzaren unitateari dagokion <b>errolda kolektiboa, 2022ko abenduaren 31ko egoera</b> jasota.
I	<b>Banku-ziurtagiria</b> , eskatzailearen libretako edo kontu korronteko IBAN adierazita (eskatzaileak titularra edo titularkidea izan behar du). Halaber, libretaren kopia edo banku elektronikoko inprimaki bat entrega daiteke.
A	Egungo ikasturteko <b>matrikularen kopia</b> .
2. ZIRKUNSTANTZIA PERTSONALEN ARABERA DERRIGORREZKOAK DIREN DOKUMENTUAK	
GURASOAK DIBORTZIATUTA EDO BANANDUTA BADAUDE	
I	<b>Hitzarmen arautzailearen edota ebazpen judizialaren kopia</b> (dibortzio edo banantze kasu guztietan)
I	Hitzarmen arautzaileak ezartzen duen <b>mantenu-pentsioa ez ordaintzeagatik demanda judiziala</b> badago, horri buruzko <b>epailearen ebazpena</b> aurkeztu beharko da (oraingo datakoa)
EGOITZA OSAGAIA ESKATU NAHI BADUZU	
I/A	<b>Alokairuko kontratuaren kopia osoa</b> , horretan eskatzailearen izena eta zenbatekoa agertuko dira.
A	<b>2023ko irailetik aurrerako hileko alokairuaren ordainagiria</b> , ondorengo datuak agertu behar dituenak: eskatzailearen izena, zenbatekoa, data eta ordainketaren kontzeptua.
A	<b>Egoitzan</b> edo antzeko leku batean toki bat <b>erreserbatu</b> dela egiaztatzeko agiria eta ordainagiria.
ELKARBIZITZA-UNITATEKO KIDEREN BATEK ELBARRITASUN BAT BADU	
I	Foru Aldundiak eman duen ebazpena, <b>desgaitasun-maila</b> aitortzen duena.
INDEPENDENTE GISA ESKAERA AURKEZTEN BADUZU (GURASORIK GABE)	
I/A	<b>2022/12/31</b> datako ohiko etxebizitzaren <b>alokairu-kontratu</b> . etxebizitza jabetzan, ez da ezer aurkeztu behar.
A	<b>Emantzipazio-programa</b> batean parte hartzen duzula egiaztatzeko ziurtagiria.
3. ZIRKUNSTANTZIA EKONOMIKOEN ARABERA DERRIGORREZKOAK DIREN DOKUMENTUAK	
	<b>Euskadin</b> 2022an zergak ordaindu dituzten pertsonak <b>ez dute aurkeztu behar</b> errenta-aitorpenaren kopiarik.
A	Sostengatzaile ekonomiko nagusietako batek <b>errenta-aitorpena</b> 2022ko zerga-ekitaldian <b>beste autonomia-erkidego batean</b> aurkeztu badu, aitorten horren kopia bat aurkeztu beharko du.
A	<b>2023an lan-egoera larriki okertu dela</b> justifikatzeko: enpresaren edo DSBERen dokumentua, ERE, ERTE edo langabeziaren egoera 2023an hasi dela ziurtatzen duena.
A	<b>Errentari lotutako oinarriko zenbatekoa</b> jaso ahal izateko, 2022ko zerga-ekitaldian erabilgarri zeuden <b>gizarte-laguntzetako bat</b> kobratu izana egiaztatu beharko da (DSBE, EPO, GLL, GSINen laguntzak, etab.).
4. ZIRKUNSTANTZIA AKADEMIKOEN ARABERA DERRIGORREZKOAK DIREN DOKUMENTUAK	
IKASLE GUZTIAK	
A	<b>Ikasturte honetako matrikularen kopia</b> , gradukoa zein masterrekoa.
UNIBERTSITATEZ ALDATU DIREN IKASLEAK	
A	GRADUA: aurreko ikasturteko ziurtagiri akademikoa, <b>batez besteko nota</b> jasotzen duena.
A	MASTERRA: ziurtagiri akademikoen kopia osoa, sarbidea ematen dion graduaren <b>batez besteko notarekin</b> .
GRADUKO 1. MAILAKO IKASLEAK	
I	BATXILERGOTIK sartzen bazara: <b>unibertsitatera sartzeko nota</b> jasotzen duen ziurtagiri akademikoa (NAU).
I	BATXILERGOTIK sartzen EZ bazara: sartzeko aukera ematen duen titulazioaren <b>espediente akademikoa</b> , horretan <b>batez besteko nota</b> agertuko da.



NAZIOKO EDO NAZIOARTEKO MUGIKORTASUN-PROGRAMAN DAUDEN IKASLEAK	
A	Parte hartzearen ziurtagiria, datak eta bizilekua adierazita.
ESKATUTAKO KREDITUEN GUTXIENEOAREN SALBUESPENAK	
A	<b>Matrikula partziala:</b> eskatzailearen lan-jarduera egiaztatzea ( <b>lan-kontratuak, lan-bizitza...</b> ).
A	<b>Osasun-arrazoiengatik errendimendu akademikoa</b> ez gainditzea: <b>Osasun Publikoko Sarearen ziurtagiri medikoa.</b>
5. ZENBAIT KASUTAN BEHARREZKOAK IZAN DAITEZKEEN BESTE DOKUMENTU BATZUK	
A	<b>Ikasketa-laguntzen ziurtagiriak</b> , unibertsitateak berak edo beste erakunde batzuek emandakoak.
I/A	Norberaren konturako <b>jarduera ekonomikoa</b> jabea den lokaletakoren batean egiten bada, 2022ko zerga-ekitaldian jardueraren helbidea lokal horretan zegoela egiaztatu beharko da.
I	<b>Ondasun higiezin batzuen jabetza garbia</b> justifikatzeko, Jabetza Erregistroaren <b>ohar soil bat</b> aurkeztu beharko da, gaur egungoa.
A	<b>Unibertsitate-prestakuntza dualetik datozen diru-sarrerak</b> justifikatzeko: prestakuntza-zentroak emandako <b>ziurtagiri bat</b> , horretan prestakuntza egiaztatuko da eta ikasketak Unibasq edo Estatuko beste kalitate-agentzia batzuen zigilu duala duen, baita <b>10 T</b> ere.
A	<b>Lanbide heziketa dualetik datozen diru-sarrerak</b> justifikatzeko: prestakuntza-zentroak emandako <b>ziurtagiri bat</b> , prestakuntza egiten ari den enpresa zehaztuta, baita <b>10 T</b> ere.
A	Kide konputagarrietako batek <b>laneko diru-sarrerak</b> dituenean, baina <b>errenta-aitorpena</b> ez du betebeharririk, 2022ko <b>10 T</b> aurkeztu gastu kengarriak deskontatu ahal izateko.